

Aniztasuna? Zer aniztasun?

(Pluralism? What pluralism?)

Borda, Itxaro
Eusko Ikaskuntza
Faculté Pluridisciplinaire
29-31, Cours du Comte de Cabarrus
F64100 Baiona

Aniztasuna aipatzeak, jendarteak eta norberak bere gizarteaz duen irudiaz galdatzera ekartzen du. Irudiaren inguruan, gure kasuan euskalduntasuna ardatz, gaia, historiaren eta etikaren aldetik sakontzen, nahiz zartarazten ahal dugu. Mirailaren joko eten-gabea. Nartzisismotik ez izateraino.

Giltza-Hitzak: Aniztasuna. Gizartea. Irudia.

Hablar del pluralismo invita al individuo a preguntarse sobre su propia sociedad y sobre la imagen que él propaga. Podemos estudiar en profundidad el tema de este reflejo, o bien provocar su explosión, utilizando el eje de la identidad vasca en nuestro caso. En el juego de espejo sin fin. Del narcisismo a la nada del ser.

Palabras Clave: Pluralismo. Sociedad. Imagen.

Parler de pluralisme invite l'individu à s'interroger sur sa propre société et sur l'image qu'il en colporte. Nous pouvons étudier en profondeur le thème de ce reflet, ou bien en provoquer l'explosion, en utilisant l'axe de l'identité basque dans notre cas. Dans un jeu de miroir sans fin. Du narcissisme au néant de l'être.

Mots Clés: Pluralisme. Société. Image.

“Euskal gizartearen aniztasuna, gizarte eredu bezala” gaia plazaratzen denean, eta horretarako plazaratzen da hain zuzen, aurrean ikusten dugun mirailak euskal gizarte zinez anitz baten irudia eskaintzen digu eta irudi baikor; aitzinakor eta ireki hori nahi genuke inguratzen gaituzten jendarteei zabaldu.

Baina bizpahiru galde egiten ahal ditugu, gaia gutxienez iparraldetik hartzen baldin bada eta agian, beste mintzalari batzuk teoria aztertzen dutenez, historiaren hegaltetik jaukiz:

- euskal gizarteak euskaldun izatearen irudi anitza ahal du?
- zein da euskaldun izatearen irudiaren edukia?
- zein baldintzatan gara daiteke aniztasuna?

Galdera sail hau arras bekan azaltzen da, literaturak eskain dezakeen “fikzioaren” babes edo gerizan barne. Itxuraz, azken hiru hamarkadetan gaitzeko aldaketak jasan dituen euskaldun izatearen irudia, egiazki euskaldun izatea bilakatua da. Itxura eta errealtatea batu dira, ugaritasuna aniztasunarekin nahastea lortuz.

Gaur bezalako mahai inguruak antolatzen dira, nonbait teoria idilikoak ez duelako funtzionatzen, edo funtzionatzen baldin badu, aniztasunaren edukia delako maingu, edo gizartearen euskaldun izatearen orde, aldaketa sakonen ondorioz, gizarte europar; kasik amerikar baten moldea “sartzen” ari delako, euskaldun izatearen irudiari halako atzerakoi airea emanez eta halaz urgentea delako irudi arkaikoaren eta ustez modemoaren uztartzea eta hari ideologiko bakarraz jostea.

IRUDIAREN BILAKAERAK

Haste hastetik erran daiteke euskal gizarteak ez duela aniztasunaren ulermenik. Ez daki zer den aniztasuna. Alegiazko elkartasun internazional selektiboaren harrietan bermatu aniztasuna, ez da benetako aniztasuna adibidez, aniztasun diskurtsiboa baino ez da, inolaz ere praktikoa. Elkartasuna gu bezala independentziarako borrokan dabilzan herriei doakie, Britainia, Irlanda, Kortsika, baina ez Frantzia beherea nonbait, non ez den Okzitania deitzen. Elkartasuna, selektiboa eta instrumentala da. Nire ideologiak, euskalduna naizenez, paristar frantses langile batekiko elkartasun sentimendua debekatzen, edo behintzat mugatzen dit.

Euskal populuak ukan du betidanik, ezberdintasunak ezberdintasun nolabait, populu bakarra eta berezia zelako nahiz delako irudipena. Horretako gorrotatzen da. Arrazoi berdinentzat miresten da. Historiaren urrako ugariak sentimendua inarrosi zuten baina ez erabat hautsi. Erreformaren garai garrantzitsua kontsideratzen baldin bada agertzen da, Nafarroako erregeen indar militarra (jadanik) zela medio, herritarrek guttiz gehien protestante bihurtu zirela, ereginaren erlijioa, herriaren erlijio eginez. Pauko gortean kosmopolitismoa, internazionalismoa eta atzerriekiko harremanak baziren,

baina ez gortean, are gutxiago herrian, ez zen aniztasunik dastatu. Azpimarratzekoa da 1598a eta 1685ko urte eskasen artean, Nantesko ediktuek erlijio mailako aniztasuna legez onartzen zuela. Azpimarratzekoa da, lehen aldikoz Europa modemoan “libertate” molde hori hedatzen zelako. Badakigu gaurko egunetan ere edozein erlijioaren integritatearen izenean aniztasuna ukatzen dela.

Ez dut uste Euskal herriak libertate eta tolerantzia hortaz gozatzeko astirik ukan zuenik. 1610etik aitzina kontra-erreforma katolikoak, erregearen erlijio beti herriarena zela inritziz, indarra (berriz) baliatuz, euskalduna kristau egin baitzituen, kristau baino gehiago, jansenista eta erlijio sektaristek ez dute aniztasuna ohoratzen. Erran dezaket, gutariko franko izatearen inguruko funtsezko ideia batekin haziak izan garela:

– Ez agertu zure burua, ez izan bestearekiko ezberdina, urtu zaitez gizartean, izan zaitez plantakoa, isila, behar den bezalakoa eta jakitatea dutenak obedi ezazu. Zenbat aldiz ez da entzun prediku aulkietarik jainkoa etorriko denean, dailua eskuan, lerroetarik gora agertzen diren buruak epaituko zituela mehatzatzen. Baldintza ideologiko horretan, kontsentsu bortitza naski, uler daiteke nehork ez duela bere muturaren argira ilkitzeko gutizia izpirik.

Bigarren gerla mundialetik landa, mundua erabat aldatzen joan zenean, hiriak hantuz eta baserri guneak hustuz, pentsatzen ahalko zen euskal gizarte anitzago izan zatekeela. Eta ez. Laburki errateko, erlijio mailako jansenismoaren orde, erlijioaren erakaspenetan bermatuz, lehenik euskaltzaleen eta geroago abertzaleen ideologiaren jansenismo eredu bat garatu zen, hizkuntza tresna gisa erabiliz, bizia ematearen eta sakrifizio nazional gorenaren mitologiaren ardatzean biribilkatua. Abertzale izanak kristau jansenista izanak nola “etsaiaren” kontzeptuarekin funtzionatzen zuen eta du dagoeneko. Egunkarrietan oraino *beste*a aipatzeko kroniketan, oharkabean behar bada edo mimetismoz ere, *etsaia* hitza idazten da, partikulazki jakobinoen kontra zaunkatzeko, gerlan bagina bezala. Mundua, euskal mundua onaren eta tzararen artean banatzen denean, bata bestearen etsai, aniztasuna ez du izaterik.

IRUDIAREN EDUKIA VS ANIZTASUNA

Euskaldunak bere buruaz daukan irudia arras erlijiosoa da, egokien artean hautatua denaz gero. Erlijiosoa, azken hamarkadetan teoria politiko independentista eta heren-mundutarrez apaindua kanikaratu arren. Diskurtso abertzaleetan entzuten diren hitzak federearekikoak dira, hala nola, salbatu (herria, euskara), bizia eman, etsaien aurrean beldurik ez eduki, beste kultura edo politika eredu-erikiko elkartasuna *behar* dela deiadarkatu etab. Interes instrumentala hots. Dena eta denena hala da, baina euskaldunena are indartsuagoa.

Abertzalea den euskaldunak, honen gustuko besteak ez dira gehiago hala, nahiz eta “gatazkare-

kiko” mutu daudenez ez diren oraino etsaien lerroetan sartuak, iragan mendeko euskaldun izatearen ereduko elementuak bereganatzen ditu: euskalduna, langilea, fidela, besta egitea maitea eta herriari errotik atxikia. Elite kultural baten kide sentitzen da, euskaraz dakielako, edo ez jakinagatik “borrokalaria” suharra delako, gizartearen aitzin soldaduak, haizeari nondik buha manatzen diona. ETAre azken agiriekin abertzale sektoreen abangoardismoa ederki azpimarratzen dute, kontsensua politiko-kulturalari egokitzeko *behar* diren karakterak zerrendatuz bide nabar.

Irudiaren edukia arinki aipatzen dugunean, ez dugu, diskurso kontsentsuala salbu, tokirik ikusten aniztasunarentzat. Hargatik, sektore horretan gaitzeko ekintza burbuila susmatzen da: euskararen irakaskuntza, rock musika, puntako teoria politikoak, helduen alfabetatzea, emazte eta homosexualen aldeko elkarteak, hezkuntza ezberdindua, internazionalismoa, askatasun mota guztien aldarrikapena, pazifismoa eta nik dakita zer oraino, inguruko gizartea motel, atzeratu eta totel dela sentiarazteraino. Duela hogeita hamar urte alderantziz zela oroitzea besterik ez daukagu: euskalduna zen ptxeroa.

Bazter gizarteak egia erran, hain handizki aipatu eta goraiatu baina hain eduki gutxi irudiarri gose begiratzen dio, euskaldun horiek zein ausartak, abilak eta jakintsuak diren xuxurlatuz. Noiztenka euskal gizartearen funtziona mekanismoak beretzen dituzte, beren elkarteei demagun bizi pixka baten emateko. Erraten da rock musika adibidez, baliatzen dela gazteen artean, abertzale militantismora heltzeko. Miresten dira, jainkoaren errotat hartuz batzutan, ikastoletan hogeita hamar urteotan gau eta egun, iparraldean hezkuntza eredu propioaren alde ari diren guraso belaunaldiak. Baina oro har gizarte orokorra, euskal gizartearen ereduaz mesfidatzen da, teoriarik eta frankotar praktikaririk, estatuaren aurka altxatzen direlako. Eta diogun euskal gizartea estatuaren, nola lehen bekatuaren, kontra baino ez da existitzen. Kontra izate horrek *aniztasuna* debekatu du.

ANIZTASUNAREN BALDINTZAK?

Euskal Herrian badakigu ez dela eztabaidarik eta eztabaida falta hori zartagailuen biolentzia bidegabekoa bezainbat pairatzen dugu. Manuak badira. Gibel presioak. Herriarekiko hil ala biziko konpromisoak. Mundu horretan hurbiletik edo urrunetik dabilenak badaki gure artean, debadiorik eta iritzi trukaketarik ez dela: politika alorrean ezker abertzalegoaren urratsen kritikatzeko jendeen mintzea eta kolpatzea da, literaturan, musikan, arteetan edo kiroleetan halaber. Normak baditugu, arrabarna sartuak gure izpirtuetan, gorago agertu irudiak, eta den mendreeneko kritika, salaketa izugarria zaigu. Bestearen, ulergarria da bestea etsaia isilaraztekoa eta finean kalitzeko den ber, intzia ezin onartua da. Sail orotan gure zirkuluak, urtetik urtera hertsia goiak, bere baitan funtzionatzen du, buztana jatera behartua den sugearen antzera.

Aspaldian finkatuak eta neurtuak diren norma horietariki kanpo ez dakigu pentsatzen.

Arrotz bat gurutzatzen dugunean, haren biografia ezik, haren familia guztiarena premiazkoa zaigu, arrotza onartzen edo ezeztatzen dugun erabakitze-ko. Hirugarren belaunaldiraino bederen ezagutzen ez dugun horren minak ez gaitu hunkitzen, haren sufrikarioak ez ditu gure pentsamendu mekanismoak inarosten eta haren zorion bideak debalde eta haurkeria zaizkigu. Laburtzeko diot horrela, jakinez orokorrean ez dela kabitzen ahal munduaren, mundu honen errealtatea. Arrotzaren kasua argia baldin bada, auzoarena berdina dela erratea zilegi bekit, hitz egiten ez dakigula jadanik. Lehen auzoa teoriarik, lehen etsaia ere bada praktikan, batez ere gure idiei plegatzen ez baldin bada.

Gizarte eredu izatera heldu aurretik, euskal gizarteak aniztasuna ikasi eta egiaztatu behar luke. Euskal gizarteak, sortu eta familiak bortxaz baies-ten duen bastarta bezala tratatzen du aniztasuna, lander baten eran, gizartearen kohesioa zalantzar jar dezakeen ondare puruxka bailitzan. Orain arteko aniztasuna itxura dela berrestera lerratuko naiz hemen, elkarteen ugaritasunarekin arraiki nahast-ten dena, baina elkarte horiek denak pentsamendu ildo berdinekoak direla garbi da edonorentzat, bar- netik edo kanpotik ikusirik.

Publikatua ez den olerki batean, poeta honek eskatzen du *norberaren identitateari buruz zein neurrirainoko axola gabezia behar du batek, urrats oroz etsaia izenda dezakeen bestearen onartzeko?* Hor dago arazoaren gakoa: aniztasuna etsaia izen- datzen den bestearekiko harremanean, usu harre- man ezean datza. Eta bakarretan, norberarentzat, elea ezpainetan, elea baita hein handian jende egi- ten gaituena, beste ezezagunari buruz ezin joana doloretua da. Gorago erran bezala, bestea izan daiteke, politikoki zedarritu etsaia edo lehen auzoa.

Une tragikoak bizitzen ditugu Euskal Herrian aldion. Herria eraikitzearen aldeko mugimendua, ilusio makina erraldoia bilakatzen da, eta idazleak, kultur gileak, kazetariak, teoria sortzaileak denak helburu berdinarekin burdinaren pean makurtzen gara. Makurtuago eta isilago. Makurtuago eta mutuago. Bizkitartean errealtatea ihes doakigula konturatzen gara eta zinkuriak salbu ez dugu erre- mediorik proposatzeko. Aniztasunaren biziarazteko medioetariki bat hitz egitea izan daiteke, hitz egitea ez bakarrik etsaien kolpeen salatze-ko, edo etsaien aurrean espresio eskubidearen errebendikatze-ko, ez, baizik eta gure ekinaren funtsaz pentsatzen, mintzatzen eta hondarean eztabaidatzen hasteko.

Hitz egin lehenik, hogeita hamar urteotan bereizten gaituen *borroka armatuaren* gaiak, honen egokitasunaz, honen premia edo zergatik ez honen premia ezaz. Hitz egin, preso edo errefuxiatu dire- nen minaz, bai eta euskal herria eraikitze-ko maki- nak suntsitzen dituen *etsaien* minaz, bestea jende sofritu gisa hartuz. Hitz egin eta entzun besteak gutaz hitz egiten, etsaia edo puta kumeak direla komentatu gabe, bestearen soa onartu, kritikoa,

zenbaitetan injustua eta gaizki ekarria iruditzen baldin bazaigu ere. Gure mundutxoa ez da apurtuko demagun, Espilondo diputatuaren deklarazio diogunez anti-euskaldun batengatik, baina apurtuko da zinez, Espilondoren erranak onartzen eta hauei argumentu diskurtsiboekin erantzuten ez dakigulako. Argumentatzeko, pentsatu behar da, lau lema baino urrunago. Argumentatzeko alde eta kontra haztatzen ikasi behar da. Badakit, pertsonalki jakin, bide hori ez dela erraza, baina aniztasunaren indartzeko bide bakarra dela halaber:

Azken adibide bat, ofizioko: entzun dut erraten behin baino gehiagotan oso idazle *frantsesa* naitzela pentsamenduz. Nire hezkuntza onartzekoa dut nik ere, eta hegoaldean dauden idazleak arras

espainolak dira berdinki. Uste dut herri honen kultura eta ideologia izaera anitzak gure eginen ez dituguno nonbait geronen izpirituak auto-mutilatzen jarraituko dugula. Hor dago oinarrizko biolentzia: norberarekiko ironia, irria, distantzia eta trufa kolektiboki ukatzean. Herria eraikitze borrokan, Hautatuen erdian irauteak, jendea ez da perfekzioa naski, jende frustrazioak eta gorrotoak hazten ditu, etsaiaren bizkar jartzen diren frustrazio eta gorrotoak. Aurkariaren diskurtsoa begirunez eta askatasunez behatzen ez baldin bada, aniztasunak ez du tokirik.

Ez da hori nahi duguna.

Alderantziz.